



PRENTSA OHARRA

XABET, DOCC-OFF proiektuko bazkide berria

Aktiboen errendimendua hobetzeko erabakiak hartzen lagun dezaketen datu eta tresnen ustiapenerako plataforma digitalak garatzen dituen XABET enpresa, Euskadiko Energia Klusterra buru duen DOCC-OFF (Scaling-up Digitalization Of Critical Components in OFFshore wind turbines) europar proiektuan sartu berri da, bazkide gisa. XABETek teknologia digitalak zehaztu eta garatzeko lan-paketeari dagozkion zereginak beteko ditu, baita proiektuaren proba-fasean lortutako emaitzak baliozkotzeko lanak ere.

XABETek esperientzia zabala du data analytics deritzon arloan eta energia eoliko zein eguzki-energiaren sektoreetako funtzionamenduari buruzko datuak ustiatzeko plataforma digitalen garapenean. DOCC-OFFen barruan, teknologia digitalak zehaztu eta garatzeko lan-paketearen buru izango da, eta HINEk pitch sisteman identifikatutako akats-moduak diagnostikatzeko eredia nahiz pitch sistemen eragiketarik jasotako datuak atzitu, biltegitatu eta prozesatzeko plataforma digitalaren prototipoa garatzeaz arduratuko da. Era berean, XABETek sistemaren saiakuntzen bitartez lortutako emaitzen bazlitzotzean eta proiektuaren zabalkunde-jardueretan parte hartuko du.

“Itsas aerosorgailuetarako osagai kritikoen digitalizazioa” deritzon proiektua (DOCC-OFF, ingelesezko siglen arabera), Europar Batasuneko Itsas eta Arrantza Funtzak finantzatua, 2019ko azaroaren 1ean abiatu zen. Datuen digitalizazioak eta monitorizazioak diseinuaren optimizazioan, errendimenduaren igoeran eta pitch sistemen mantentze-kostuen murrizketan duten eragina frogatzea da proiektuaren helburu nagusia, sistema hori aerosorgailuaren osagai kritikotzat hartuta. Pitch sistemak aerosorgailuetako palen doikuntza errazten du, eta horretarako, energia eoliko erabilgarriaren frakzio egokiaz baliatuta birarazten ditu irteerako potentziarik handiena lortzeko, turbinak errotazioaren gehieneko abiadura gainditzen ez duela ziurtatuz.

Proiektuaren partzuergoa 4 bazkidek osatzen dute. **XABET**ekin batera, sektore eolikorako pitch hidraulikoko sistemak ekoizten dituen **HINE RENOVABLES** euskal enpresa DOCC-OFF proiektuaren funtsezko bazkideetako bat da. Era berean, Belgikako **SIRRIS OWI-lab** ikerketa-zentroak parte hartu du, proiektuaren garapenak probatu eta baliozkotzeko lanak zuzentzen dituelarik. **Energiaren Kluster Elkarte**a (**ACE**) proiektuaren koordinazio eta zabalkunde lanez arduratu da.